



10/10/10



ERROMACO AITA SANTU
LEON XII *emana daucan Ju-
bileoa irabasteco jaquin
beardana, eta eguin-
ditequiana.*

JAQUIN BEARDANA.

1.º Esan dan Aita Santu
Erromacoac ematen die Jubileo
osoa eta becatu gucien barca-
cio eta Indulgencia, Bulda
Santua duten Cristau Fiel gu-
ciai, baldin sei illa bete barre-
nean, eguiaz beren becatuezaz

damuturic ta gañera confesa-
turic eta comulgaturic, ama-
bost egun seguituetan, edo
naiz segituac ez izanagatic,
amabost egunean, egunian bein
visitatcen badituzte Obispo
Jaunac señalatutaco Eleizac,
visita bacoitzian oracioa egui-
ñaz Jaungoicoari Fede, Erli-
gio eta Eleizaren on eta au-
mentuagatic, eregien destruc-
cioagatic, Principe Cristaven
arteco paqueagatic, eta Fiel
gucien paque eta osasunagatic.
2.º Baño Cofradiac, baldin
bilduric eta procesio moduan
visitac eguin nai badituzte; ira-
baci detzaquete Jubileo eta in-
dulgencia iru egunian esan di-

raden visitac eta esan dan mo-
duan eguiñarequin : ala dio
Pamplonaco Obispo Jaunac.

III 3.^o Carceletan preso dau-
denac , edo elbarrituric , edo
zarrez , edo gaisoz ecin ibilli
diranac , eta beragatic Eleize-
taco visitac ecin eguin dituz-
tenac , irabaci ditzaquete Jubi-
leoa , baldin amabost egunian
esan dan guisan , eta esan dira-
den asmoetaraco , egunian bein ,
visitaren lecuan , errezatzen
badute Errosarioaren parte bat ;
contu eguin dezagun , bost a-
marreco : ala dio Obispo Jaunac
berac : baita ere oraindic comul-
gatcen ez diran persona gasteac
irabaci ditzaquetela , edoceñ

Eleizatan iru *Credo*, Comunion-
aren lecuan, errezatu ezquero.

4.^o Ichasoan edo erriz cam-
pora viagetan ibilliric, sei ill
oyec igarota beren erri ta eche-
etara viurtzen diranac, irabaci
ditzaquete Jubileoa, dio Obis-
po Jaunac berac, esan diran
gauzac eta visitac beren errian
eguin da

5.^o Obispo Jaunac señalatu-
taco Eleiza edo Eleizac, gu-
ciac visitatu bear dira egunian
bein, eta ez da asco egun batian
bat visitacia eta beste bat bes-
tian: ala dago erabaquia.

6.^o Jubileoa irabaci naidue-
nac, irabasteco artu dituen
amabost egun barrenean con-

fesatu bear du ondò , confesio
onac escatzen dituen disposi-
cioaquin, naiz bere conciencian
becatu mortalic arkitzen ez
padu ere : eta baldin bein con-
fesatuta , amabost egun ayen
bitartean becatu mortalian zo-
rigaitzez erorten balitzaque ,
berriz confesatu bearco luque.

7.º Orobat comulgatu bear-
du Jubileoa irabaci naiduenac
esan dan demboran, eta comu-
nio on batec escatzen dituen
disposicioaquin.

8.º Baldin Jubileoa irabas-
tera jarri dana, leenbicico avia-
tu ez pada confesioarequin ;
beñic beñ aviatu bear du be-
re becatu gucien damu bear

becelacoarequin, damutzen da-
la eguiaz bere becatuezaz, eta
bere viotzean galcen duela e-
doceñ becatuganaco gogoa eta
aficioa. Baño esan dan becela,
gueroago bederic, edo naiz az-
queneco egunian, confesatu ta
comulgatu bear du.

1. 9^o Eleizac visitatcecoan
eguin beardan oracioa asco
da izatea vocala; au da, aoz
bacarric eguiten dana, baldin
devocioz eguiten bada, eta
viotzac aorari laguncen diola:
espirituz edo viotzez bacarric
oracioa eguin nai duenac, vi-
cero ondo eguingo du; baño
orduan ere aoz cerbait erre-
zatu bearco du. ; Cer oracio

bada edo cembat deimboracoa
eguin bearda? Ez dago gauza
erabaquiric. Aita Santu Bene-
dicto XIV cion oracio laburra
asco dala, devocio eta fervo-
rearequin eguiten bada; baño
ez naguitasunez eta gogoaren
faltaz eguiten dan oracio la-
burra. Ala guciz ere, esandi-
teque, costumbreac señalatu
duela oraciozat visita bacoit-
cian Sacramentu Aldarecoa-
ren Estacio nagusia; eta au-
izentatuco da eguin ditez-
quean gauceen artean.

10 Jubileoan irabasten dan
indulgencia da irabasten due-
narenzat, ez besterenzat; eta
orregatic indulgencia ori ecin

irabaci diteque besterenzat,
ezta ere Purgatorian dagoan
embatenzat.

11. Jubileoco indulgencia
irabaci diteque bi, iru edo
gueyago aldiz, baldin beste
ain beste aldiz eguiten badira
diligenciac, bein irabasteco e-
san diranac.

Oec dirade necazari gendeac
batezere jaquin bear dituen
gauzac Jubileoa irabazteco. Ba-
dira ere beste maquiñabat gau-
za jaquin beardiranac: bada-
quizquite Confesore Jaunac, eta
vicio ondo izangolitzaque Ju-
bileoa irabaci naidutenac beren
confesore etatic dagoquien eta
egoquia izangozaien argui vi-

deac arcia. Goacen orain eguin
ditezquean gauzetara.

EGUINDITEZQUIANAC.

Jubileoa irabasteco bere e-
chetic ateratzen dana bijoa isill-
choric, modestia andiarequin,
eta bere barrenera bilduric;
eta lenvicico Eleizan sartcen
danian, belaunico jarriric, ado-
rabeza Jaungoicoa, eta eracutsi
bizayo viotza gucia humildu-
ric eta damuturic bera ofendi-
tuagatic, eguiñaz gogozco acto
contriciozcoa. Guero esan de-
zaque naibadu oracio au:

ORACIOA.

Nere Jaun eta Jaungoicoa,

misericordian aberatsa cerana,
zure Omnipotencia guri bar-
catzen eta misericordia eguiten
aguitz eracutsi oy dezuna : zuc
orain ere esqueintcen dizqui-
guzu Jubileo onetan zure mi-
sericordiazco ondasunac , eta
zure Seme Jesus maiteac bere
pasio eta eriotzarequin irabaci-
cituen merito eta satisfaccioac,
izandezagun cerequin pagatu-
gure becatuen videz zuganonz
ditugun zor andiac , eta cere-
quin gure animac garbitu be-
catuzco mancha gucitic. Viotz
guciarequin esquerrac ematen
dizquizut mesede ain guczco
onegatic ; eta au, asmaoa dedan
becela , logratceco , arren la-

gundunazazu zure graciare-
quin : leembicico esagutcera
emanguirazu nere becatuaren
ichustasuna, neré becatuaquin
nic zuri eguindaco injuria ;
sortu ezazu guero nere viot-
cean zu ofendituaren pena eta
dolore vicibat , baita ere izan
alditequean izu eta gorrotoric
andiena becatuaren alderonz.
¿ Nola Jauna , gorrotoarequin
beguiratuko ez diot zu eta zure
gracia galeraci dizquidan be-
catuari ? ¿ Nola penaz erdi bi
eguingo ez zat viotza, ecusiric
zu, Jaungoico ain ona, aimeste
motivoz amatu bearcinduz-
queana, ofendituzaitudala? Bai,
Jauna , damutcen naiz , nere

barrena penaz eta illuntasunez
beteric dago zure contra beca-
tu eguiñagatic. Orain ezagut-
zen det ondo bearra dedala zu
izatia zeran becin ona, barca-
tua izango banaiz. Barcanaza-
zu bada arren zure ontasun eta
miseriçordiagatic, urricaldu
zaite becatari onezaz.

Dembora berean, Jauna, it-
zuli izazu zure misericordiazco
beguiac zure Eleizaren alde-
ronz, eta beguira guiezu onen
estutasunai, onen nequeai, onen
negarrai. Indartu ezazu bere
etsayen contra, eta eregiac edo
fedearen contraco doctrinac
quendu diozcan semeac atsera
viurtuiozcatzu, zorigaiztoco

oiei ezagutzerá ematen diezula
beren ichumena, beren erroria,
beren vide oquerra, onela di-
joazen besoac zabalduric icho-
doten dagoquien bere Ama
Eleizagana. Baño bere semeen
artetic ere aienatu izazu escan-
daloac eta becatuac, eta ipiñi-
zazu zure legueco videan, zu
aurreneco amatzen zaituztela,
eta zugatic bata bestea, utsiric
betico elcarren arteco gorro-
toac, eta paquez eta caridadez
unituric. Paquean iduqui iza-
zu Cristandadeco Principe gu-
ciac; osasuna, arguia, eta acier-
tua emanguiozu gure Aita
Santu LEON amabigarrenari,
baita ere gure Erregue FER-

NANDO zazpigarrenari. Eta
batian esan dezadan, zabaldu
ezazu gueyago eta gueyago
zure Erligio gozo-eguijazcoa,
beguira guiezu Eleizaren pre-
mia guciai, eta guciac socorritu
itzatzu. Ori da escatzen dizu-
dana Jesu Cristo gure Jaunaren
merecimentuagatic, bitarteco
ipiñiric ere onen Ama Maria
Santisima, eta zure adisquide
Santu guciac, eta batez ere E-
leiza onetaco Patroia, eta asmo
onetaraco errezatzera noa alde-
dan devocioarequin Sacramen-
tu Santuaren Estacioa. *Emen
errezatu ditezque sei Pater
noster, sei Ave Maria, sei
gloriarequin.*

Ex dá precisa goico oracio
ori esatea: bacoitzac beste mo-
duz eta itzez esan dezaque,
naiz viotzez bacarric; baño
beti Jaungoicoari oracioa eguin
bearzayo an izentatu diraden
gauzacgatic, eta Estacio ere
eguin bearda artaraco.

Azqueneco egunian esan
ditequean.

ORACIOA.

¡O misericordiazco Aita, eta
consuelo guczco Jaungoicoa!
Zuri esquerrac; eguin det Ju-
bileo au irabasteco eguin bear
nuvena. ¡Ala ondo emanac izan

ditezela eman ditudan pausoac,
ondo eguiñac eguin ditudan
oracioac, bear becela errecibi-
tuac errecibitu ditudan Sacra-
mentuac! Zuri zor dizut, Jau-
na, Jubileo onetan nere ani-
maraco eguin ditutan irabaciac
eguiña: aitordet, eta esquerrac
ematen dizquizut. Ez dizadala,
Jauna, irabaci oec becatu berr i-
aquin galdu; iduquinazazu ba-
da beti zure escutic eta zure
gracian, ernay nere animaren
etsayen contra, beste pensa-
menturic eta asmoric gabe ez
pada zu servitcia, zuri gusto
ematia, zu amatcia: onela lo-
gratuco det egun embatian be-
tico zorionecoa izatia. Amen.



